



ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN BIZI-KALITATEA

DIMENTSIOA: ONGIZATE MATERIALA

Hausnarketarako galdera hauek proposatzen dizkizugu... animatzen zara?

Ikertzeko puntuak: zer da ongizate materiala?

Badaukat behar dudana erosteko dirua; hala nola, arropa, oporretan joatea, lagunekin irtetea edo zinemara joatea. Gustatzen zaizkidan gauzak ere erosi ahal ditut. Gustuko toki batean bizi naiz. Ondo sentitzen naizen lantoki batean egiten dut lan.

Nire ongizate materiala nolakoa den aztertzeko, honako hau izaten dut kontutan:

- Gustura nago nire etxe, egoitza edo etxebizitzan.
- Gustura nago nire lantoki, tailer edo zentroan.
- Ondo iruditzen zait nire soldata-kopurua.
- Behar ditudan gauzak dauzkat.
- Diru pixka aurreztu ahal dut.
- Inoiz behin kapritxo batzuk ere erosi ahal ditut.
- Beste pertsonentzako opariak erosi ahal ditut.





Nire tokian jartzeko galderak: zer pentsatu eta sentitzen dugu adimen urritasuna dugun pertsonok?

“Lanak lagundu dit nire burua pixka gehiago arintzera. Lehen itzalita bezala sentitzen nintzen. Enpresa normal batean lan egiteko aukera eman zidaten. Hasiera ez zen erraza izan. Adimen urritasuna neukan langile bakarra nintzen eta ez nekien nola adierazi ahal nuen nire balioa”.

“Paletak betetzen ditugunean ondo sentitzen naiz, bada gairiditutako erronka. Eta ez da soilik neure meritua, lankideena baizik. Nork bere harri-koskorra ekartzen du. Lortzen dugunean oso ondo sentitzen gara”.

“Hilabetearen bukaeran lanak ematen didan diruak autonomia izateko balio dit eta lehen imajinatzen ez nituen gauzak egiteko aukera ematen dit. Kapaz garela frogatzeko”.

“Nire soldata irabazi egiten dut. Lan gogorra eginez. Hilabetearen bukaerara heltzen naiz. Ni ere gustura asko joango nintzateke oporretan baina ezin dut, hemen geratu behar naiz”.

Hausnarketarako galderak: Zer uste duzu? Zer sentitzen duzu?

Lanak egunerokotasuna, estruktura eta balio-esperientzia ematen digu. Honez gain, soldata batek autonomoak izateko aukera ematen digu, gure dirua zertan ematen dugun erabakitzekoa. Ekonomia-krisiaren garai honetan, zure ongizate materialari dagokionez, zerk lasaitzen zaitu? Zerk kentzen dizu? Adimen urritasuna duen pertsona baten lekuan egongo bazina, zeintzuk jarrera eta eskarmentu uste duzu funtsezkoak izango lirakeela ziurtasun material hau indartzeko? Zerk kezkatuko zintuzke?





Elkarbanatzeko galderak: zer pentsatzen dute beste pertsonak? Zer sentitzen dute?

Fernando Martínek, Lantegi Batuak-en Gizarte eta Lanaren Garapen-arduradunak, hausnarketa hau elkarbanatzen du lanaren garrantziaz eta honek bizi-kalitatearen zenbait dimentsioekin duen loturaz:

Ikuspuntu profesional batez gaur eguneko gizarteetan uste izaten da lanpostuak gizartearen sartzeko bide nagusia izaten jarraitzen duela, segurtasun ekonomikoa emateaz gain, hiritarren arteko giza-koheresia ere bermatzen duelako. Adimen urritasuna duten pertsonentzat lanpostu batean aritu ahal izateak ez dakar soilik diru-sarrera batzuk, baita bere inguruak adierazten dion bere giza-balioaren ezagutza eta gizartearen onarpena ere. Honegatik, lan jarduera batek ematen dio pertsonari bere ahalmenak, ohiturak eta gaitasunak garatzeko aukera, ekonomikoki hobetzeko laguntza emateaz gain, askotan, bere gizarteratzearen oinarria ere direnak.

Guzti honekin batera lana eskubide gisa hartzea dago, lanean aritzeak eskubide guztidun hiritar bihurtzen gaituelako. Zentzu honetan edonork izan behar du lan bat lortzeko asmoa eta aukera. Eskubidea ere bada duintasunez bizitzeko aukera ematen dion diru-sarrera lortzea, baita bere trebetasuna, ohitura eta abilezien formakuntza ere, bere lan-inguruan hobetzeko aukera eman diezaioten. Formakuntza honek lagundu behar du ere trebakuntzan, gaitasun horiek bere garapen eta gizarteratzea hobetuko duten komunitate inguruetan erabiltzeko.

Guzti honegatik, lan jarduerak modu zuzen batean izaten du eragina urritasuna duen pertsonaren ongizate materialean, baina harremanetan dago ere bizi-kalitatearen beste dimentsio batzuekin, hala nola, garapen pertsonala, gizarteratzea, pertsonen arteko harremanak, eskubideak, etab.

.....

Araceli Barañanok, Futurbide-ko Ekonomia eta Administrazio Arloetako Koordinatzaileak, adimen urritasuna duten pertsonen ongizate materialari buruz azaltzen digu:

Pertsonen bizitzaren alde oso inportante bat dimentsio materiala da. Futurbiden Kontugile Erreferentea da babespeko pertsonen eskubide eta betebeharrak ekonomiko eta finantzarioak zaintzen dituen, beren ondasunak administratzen dituen hauen errendimendurik handiena lortzeko, babespeko pertsonen behar ekonomikoak betetzeko eta hauen bizi kalitate hobea lortzeko. Fundazioaren lana hasten da aldatutako ahalmen juridikoa duen pertsonaren tutorea izatera pasatzen denean, Ondasunen Inbentarioa egiten eta Epaitegian aurkezten. Tutoretza Erreferentearekin eta babestutako pertsonarekin biltzen da pertsona bakoitzaren neurriko aurrekontuak prestatzeko, beti ere pertsona honen nahiak eta beharrak betetzeko xedeaz. Hortik aurrera babespekoen diru-sarrerak eta gastuak kontabilizatzen hasten dira, horretarako finantza-informazio guztia biltzen du, hilabetero kudeatu eta kontrolatzen ditu diru-sarrerak eta gastuak eta urtearen bukaeran Kontuen Errendizioa prestatzen du Epaitegietan aurkeztu eta hauen kontrola eta onarpena lortzeko.



Zeure ondorioak:

A large, rounded rectangular area with a light green background and a dark green border, containing horizontal dotted lines for writing.